

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **8/2021 Mozioa, otsailaren 10ekoa, COVID-19ren pandemiaren ondorio ekonomikoen kalte gehien jasan duten zergadunei babesa emateko zerga-neurriei buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko otsailaren 10ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

8/2021 Mozioa, otsailaren 10ekoa, COVID-19ren pandemiaren ondorio ekonomikoen kalte gehien jasan duten zergadunei babesa emateko zerga-neurriei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala, zerga-harmonizazioaren printzipioaren arabera, COVID-19ren pandemiaren ondorio ekonomikoen kalterik handiena jasan duten zergadunei babesa emateko zerga-neurriak hartzen, enplegua eta ekonomiaren suspertzearen alde egiteko.

2. Arabako Batzar Nagusiek lurralde historikoetako instituzio eskudunei eskatzen diete garatu eta burutu dezatela 2014an eta 2018an onetsitako erreformen emaitzak berrikusteko prozesua eta emaitza horiek partekatu ditzatela Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezarritako harreman-organonetan, bai eta analisi horretan jaso ditzatela COVID-19ren pandemiaren ondorio ekonomikoetatik eratorritako osagaiak, noiz eta adierazleak egonkortu eta gogoetaren helburuetarako erabilgarriak diren ondorioak ateratzea ahalbidetuko dutenean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 10a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**